

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

12213 *Huts-zuzenketa, honako honena: 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena.*

Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua argitaratu zen 2020ko irailaren 30eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, 259. zenbakian; bada, hutsak aurkitu ditugu testu horretan, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

3. orrialdean, zioen azalpenean, bosgarren paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «Errege lege-dekretu honen egiturak hiru titulu ditu...». Baina hau esan behar du: «Errege lege-dekretu honen egiturak bi titulu ditu...».

11. orrialdean, 7. artikulua lehenengo paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «Artikulu honek aipagai dituen...». Baina hau esan behar du: «Arau honek aipagai dituen...».

14. orrialdean, 13. artikulua izenburuaren bosgarren lerroan, hau dio: «... Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa)...». Baina hau esan behar du: «... Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa)...».

20. orrialdean, lehenengo xedapen gehigarriaren lehenengo paragrafoan, hau dio: «Estaldura-tasa handia eta jarduera suspertzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresatzat joko dira...». Baina hau esan behar du: «1. Estaldura-tasa handia eta jarduera suspertzeko tasa txikia dituzten sektoreetako enpresatzat joko dira...».

20. orrialdean, lehenengo xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoan, hau dio: «Halaber, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea automatikoki 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatuta daukaten enpresek...». Baina hau esan behar du: «2. Halaber, 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea automatikoki 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatuta daukaten enpresek...».

21. orrialdean, lehenengo xedapen gehigarrian, hirugarren apartatuaren a) letraren bigarren lerroan, hau dio: «... 1.1 artikuluan ezarritakoaren arabera...». Baina hau esan behar du: «... 1. artikuluan ezarritakoaren arabera...».

24. orrialdean, laugarren xedapen gehigarrian, 3. apartatuaren hirugarren paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «... Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 330. artikuluko baldintza guztiak betetzen direnean bakarrik jarraitu ahalko da jarduera uzteagatiko prestazio hori jasotzen». Baina hau esan behar du: «... Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 330. artikuluko baldintza guztiak betetzen direnean bakarrik jarraitu ahalko da jarduera uzteagatiko prestazio hori jasotzen (testu hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen)».

25. orrialdean, seigarren xedapen gehigarrian, 2. apartatuaren lehenengo paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «... artikulua honen ondorioetarako kontsumitzaile kalteberatzat...». Baina hau esan behar du: «... xedapen honen ondorioetarako kontsumitzaile kalteberatzat...».

26. orrialdean, seigarren xedapen gehigarrian, 4. apartatuaren lehenengo lerroan, hau dio: «Aurreko apartatuan...». Baina hau esan behar du: «Bigarren apartatuan...».

27. orrialdean, seigarren xedapen gehigarrian, 5. apartatuaren lehenengo paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «Artikulu honen babesean...». Baina hau esan behar du: «Xedapen honen babesean...».

27. orrialdean, seigarren xedapen gehigarrian, 5. apartatuaren b) letran, lehenengo paragrafoaren hirugarren lerroan, hau dio: «... artikulua honetan ezarritakoari jarraituz». Baina hau esan behar du: «... xedapen honetan ezarritakoari jarraituz».

27. orrialdean, seigarren xedapen gehigarrian, 5. apartatuaren b) letran, bigarren paragrafoaren lehenengo lerroan, hau dio: «Artikulu honetan...». Baina hau esan behar du: «Xedapen honetan...».

40. orrialdean, eranskinaren izenburuan, hau dio: «Bereziki eragindako enpresek, lehenengo xedapen gehigarriaren 2. apartatuan definituek, EJSN-09 sailkapenean dituzten kodeak». Baina hau esan behar du: «Bereziki eragindako enpresek, lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatuan definituek, EJSN-09 sailkapenean dituzten kodeak».